

Parte izan, parte hartu eta parte eman



IÑAKI BARCENA
EKOPOL ETA
EKOLOGISTAK
MARTXANEKO KIDEA

Ez dira gauza bera. Sistema demokratiko bat, edozein eskalan, parte-hartzailea ez bada ez da demokratikoa. *Demos* batek ez badu lehentasunik erabakiak hartzerakoan, demokrazia eredu hori hutsala da. Israelgo Estatuan hauteskundeak egiten dira, baina ariketa politiko horrek ez dio legitimazio demokratikorik ematen nazioartean. Legitimazioa diot, herriengandik jasotzen den onespena, ez estatuburuek ematen duten oniritzia.

XXI. mendea ez da hasi Gorbaxov eta Reagan-en garaian euromisilen krisia eta gero iragarri zen moduan, bakerako norabidean, alegia. Aldiz, politikoki eta ideologikoki mundua bitan banatzetik, “inperioen” arora pasatu gara globalizazio kapitalistaren bultzadaz, eta 40 urte pasa eta gero globalizazio ekonomiko, kultural, politiko eta komunikatibo horren eztanda ezagutzen ari gara modu krudelean. Zer egin mundua demokratizatzeke?

Duela 30 urte demokrazia parte-hartzailea proposatu zen gure arazo politikoak bideratzeko. Eta zenbait esperientzia interesgarri izan eta gero (hasierako aurrekontu parte-hartzaileak, kasu) biraketa neoliberala sumatzen da prozesu parte-hartzaileetan (Jone Martinez Palacios, EHU, 2021). Ikerlari feministaren ustez, diagnostikoan hiru osagarri nagusi agertzen dira: demokraziaren krisiaren na-

turalizazio mekanizista, partaidetzaren burokratizazio neoliberal eta partaidetzaren merkantilizazio pribatiboa.

Ados gaude. Horregatik diogu ez dela bera, parte izatea (erabakiak hartzeko kolektibo baten partaide “legal-ofizial” izatea), parte hartzea (erabaki politikoak hartzeko konfrontazioan egotea) edota parte ematea (instituzio politikoetatik parte hartzeko gonbita egitea).

Politika gatazka da. Gatazka, talde sozial eta politikoen arteko harreman desorekatuetan, boterearen bila. Parte hartzea tresna bat izan daiteke harreman horiek ezabatzeko edo arintzeko. Horregatik, parte hartzearen zentzua modu sistematiko eta jarraituan presente egotea da, egitura asimetriko eta sozio-politikoki gatazkatsuetan. Eragile eta sektore sozialen ideiak, balioak edo interes kontrajarriak islatzen.

Parte hartzeaz hitz egitea da (edo izan beharko luke) botere erabileraz berba egitea. Boterea birbanatzeaz eta gizarte-sektore desberdinetara iristiaz. Desjabetuak, kaltetuak edo baztertuak direnak birjabetzeko erabiltzea.

Horregatik, parte hartze demokratizatzailea informazioa banatzea, kontsultatzea edo aholkatzea baino gehiago da. Botere-erlazio asimetrikoak identifikatzea eta berdinen arteko harremanetan eraldatzea da. ●

Bizipenak



LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

Bizipen multzoa da gure historia. Esperientziek osatutako atal eta kapituluak. Errutina eta egunerokoa zipriztintzen dituzten gertaerak. Baina adin batera iritsita, bizi izan-dako momentu batzuk atzenduta geratzen dira, buruaren zokoren batean ostenduta. Ez ahaztuak, abandonatu-txo, agian.

Edozerk, oster, berpitz lezake gertakizuna, urteen geruzek ondotoxo estali badute ere. Metxa izan liteke prentsako erreportaje bat, norbaitek kontatutako zeozer, edo aliritzira egindako txangoa.

Orduan, oroimeneko arkeologoa lanean hasten da jo eta su. Magikoki, gertakizun hura ganbarako kutxatik irten, eta akordura etortzen da, distiratsu. Zerk zokoratu zuen asmatu ezinda, berreskuratzen dugu, miretsita burmuinaren barrenean gorde genuelako gura barik.

Jazoera hura ez eze, inguratzen zuen guztia esnatzen du: usainak, kantak, pasadizoak, sentimenduak...

Orainak, baina, desitxuratu lezake guztia. Errepide bat eraiki dutelako, eta parajea suntsitu, esaterako. Errealitateak gure bizipenak marguldu ditu. ●